



Kaixo guraso:

Datorren ikasturte hasierako argibide batzuk ematera gatozkizue.

Irailean osasun egoera honetan aurkitzen bagara/osasun egoerak okerrera egiten ez badu, Hezkuntza Sailaren esanetan, ikastetxera normaltasunez itzuliko gara. Hezkuntza-jardueran segurtasun eta osasun neurri batzuei eutsiko zaie, betiere Osasun Saileko agintarien jarraibideei jarraituz:

- Maskara ez da derrigorrezkoa (aukerazkoa)
- Eskuen higieena.
- Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena.
- Kontaktu kopurua murriztea.

Azpimarratu beharra dago eskolara egunero bertaratzen diren lagun guztiek ondoko sintoma hauetako batzuen agerpena zaindu beharko dutela: 37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna eta usainik edo dastamenik ez izatea. Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren Osasun Zentrora deitu beharko dute.



- **IKASTURTE HASIERA**

Ikasturtea irailaren 7an, astelehena, hasiko da, aurrez aurre, etapa eta maila guztietan.

- Irailaren 7tik 18ra goizez izango dira klaseak.
- Irailaren 21etik aurrera, goizez eta arratsaldez.
- 14, 15 eta 16 jaiegunak dira.

Abuztuaren amaieran jakinaraziko dizuegu gela bakoitzean sartzeko eta irteteko ordutegia eta tokoa, 0 eta 12 urte bitartekoak.

Jarraitu beharreko protokoloaren berri ere emango dugu pandemiaren egoeraren arabera aldatzen baita.

- **JANGELA**

- Jangela irailaren 9an, asteazkena, hasiko da.
- Pandemia eta hartu beharreko neurriak kontuan hartuta, eta lana eta familia uztartzea zaila dela jakinda, eskertuko genuke ez ohikoa izango den ikasturte honetan, zerbitzu hori jantokiko ordua eta gurasoen lan-ordutegia bateratu ezin dituzten familiek erabiltzea. Eskaera hau protokoloak ezartzen dituen segurtasun-neurriak bermatu ahal izatean oinarritzen da.
- Horretarako, abuztu amaieran-irailaren hasieran galdetegi bat jasoko duzue guztia antolatzeke.



• **LIBURUAK**

COVID-19ren bilakaera zein izango den jakin gabe, eta espazio berean jendea pilatzea saihestearen garrantzia kontuan hartuta, aurten liburuen kudeaketarako modua aldatuko dugu:

- **Irailaren 1ean**, ikastetxeko webgunean eta atarian argitaratuko ditugu liburuen zerrendak, haien prezioekin. Jakin ezazue www.samiela.eus webgunean argitaratuta dagoela liburuen zerrenda (prezioak falta dira).
- Pilaketak saihesteko, ikastetxea arduratuko da horiek kobratzeaz, hau da, zuek ez duzue transferentziarik edo ordainketarik egin behar, liburuak kontu korrontetik kobratuko zaizkizue. Beraz, ez duzue eskolara joan beharko liburuak jasotzera.
- Karpetak eskolako lehen egunean emango dizkiegu zuen seme-alabei, eta egun horretan bertan sorta bat eramango dute izena jartzeko eta pixkanaka forratzeko.

Zuzendaritza taldea